



Argantzón Ikastola ez da ohiko ikastola

Ekainaren 17an izango da "Irrikitan" izenburupean Araba Euskaraz Trebiñu barrendegian. Hirugarren aldiz antolatuko du Argantzón Ikastolak Araba Euskaraz. Adabakia deitzen diote trebiñuar askok beren konderriari, administratiboki Burgos baita, eta geografikoki Araban dago. Horregatik, Argantzón Ikastola ez da ohikoa.



Beñat Garaio

@BGaraio

ARGAZKIAK: ARGANTZÓN IKASTOLA

Asko ez dira ohartuko N1 errepidean Araban barrena gidatzean zazpi minutuko tartean Araba-Burgos-Araba egingo dutela. Trebiñu barrendegia da, batzuen

ustez Arabako zortzigarren kuadrilla. Lurraldearen azaleraren %7 da, eta Argantzón eta Trebiñu udalerrien parte diren 51 herri txikik osatzen dute.

ARGIAk, 17. Korrika Trebiñutik abiatu zenean, Roberto Gonzalez de Viñaspere euskaltzain trebiñuarra elkarrizketatu zuen. Haren esanetan, euskara XVIII. mende amaieran desagertu zen

Trebiñun, Araban behetik gora gertatu zen hizkuntza galera zabal baten baitan. Hala ere, euskaltzainak zioen, barrendegian egin zen inkesta soziolinguistikoak datu argigarri eta itxaropentsuak eman zituela: euskaldunak %13 ziren. 2012an beste neurketa bat egin zen eta euskaldunak urte horretarako %22 ziren (elebidun hartzaileekin %39). Goraka-



da garrantzitsua izateaz gain, inguruko eskualdeetako datu soziolinguistikoen oso antzekoak dira Trebiñukoak. Egoera zailean hainbat arrazoiri esker erdietsitako lorpena da.

Egoera politikoa ezagutzeko Pablo Ortiz de Latierroekin hitz egin dugu. Argantzón udalerrian EH Bilduko zinegotzia da eta Trebiñu Araba Da mugimenduko kidea, mugimendua azken boladan geldirik dagoen arren. Saiakera ugari egin dira azken hamarkadatan Trebiñu Arabari batzeko, eta 1998ko erreferendumean biztanleek nahi hori adierazi zuten. Udalerrian alderdi denak agertu dira integrazioaren alde, baina PPK eta PSOEek ikuspuntu ezberdinak dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian. Duela lau urte, Eusko Legebiltzarrak Trebiñuren integrazioa Espainiako Kongresura eraman zuen, Kongresuak duelako eskumena integrazioa baimentzeko. Erantzuna, ordea, argia izan zen. Ortiz de Latierrok dio konfrontazioa eta herritarren aktibazioa behar direla urte luzez eskatu dena eskuratzeko, baina alderdi eta erakunde guztiak ez daude horretarako prest.

Barrendegian bizi duten egoera administratiboa kontuan izanda, Arabako Foru Aldundiak eta Burgosko Diputazioak hitzarmena sinatua dute barrendegiko herritarrek Arabako zerbitzuak erabili ditzaten. Auzia da osasuna eta hezkuntza erkidego mailako eskumenak direla (kasu honetan EAE eta Gaztela eta Leon), eta sinatutako hitzarmena probintzia mailakoa dela. Zuzeneko diru-laguntzak ere ezin ditu eman Arabako Foru Aldundiak. Horrenbestez, hitzarmen horrek ez ditu bere gain hartzen trebiñuarren bizitzako esparru guztiak.

Gutxisolo Euskara Elkartea eta barrendegiko euskara teknikaria

Euskararen alde egin duen eragile garrantzitsuenetakoa izan da Gutxisolo Euskara Elkartea eta bertako Pilutxi Ansotegirekin bildu gara. Trebiñu herrian euskara eskolak antolatu ziren duela 20 urte eta talde horretako ikasle batzuen artean sortu zuten elkarteak. Ansotegik gogoratu du hasieran oso diru gutxi zeukatela, baina gogoz ekin ziotela ibilbideari. “Euskara kalera eramateko” asmoz denetariko ekintzak antolatu zituzten, batik bat gazte eta umeentzako. Hamar kide inguru izan ditu elkarteak, nahiz eta lanean modu aktiboan bost izan diren. Harreman estua izan dute ikastolakoekin, eta hain zuzen, bi eragile horiek izan dira barrendegiko ‘euskalgintza’. Adibidez, Ansotegiren semea Argantzón Ikastolako lehenengo belau-naldikoa izan da, nahiz eta eskola publiko euskaldunaren aldekoa izan. Baina hori ezin liteke Gaztela eta Leonen parte izanda. “Erakundeak Trebiñun beti adabakiak jartzen dabilta”, gaineratu du.

Erakunde batzuetatik jaso duten mezua ez da beti adeitsua izan, Gutxisolokoei eskatzen baitzitzaizen Euskal Herrian antolatzen diren ekitaldiak antolatzea, kontuan hartu gabe Trebiñuko errealitate eta erritimoa. Udaletan ere Gutxisoloren lana ez da egoki ulertu eta bultzatu, hala dio Ansotegik: “Ito egin gaituzte”. Esan daiteke Gutxisolo elkarteko orain arteko kideen jarduna amaitu dela, baina badirudi gazte batzuk elkarte biziberritzeko asmotan dabiltzala. Ez da kasu isolatua, inguruan dagoen Añanako euskara elkarteak ere utzi egin behar izan baitu. Haiak ere ito egin dira.

Erakunde batzuetatik jaso duten mezua izan da ez dutela egingo salbuespe-

nik Trebiñurekin. Eta trebiñarren erantzuna: “Baina Trebiñu salbuespena da!”. Horrela, Arabako hizkuntza politika antolatzeke egin zen bilera batean Gutxisolo elkarteak Trebiñuko barrendegiko euskararen egoera salatu zuen. Protesta horren ondoren, Arabako Foru Aldundiak bere euskara teknikarien sarean jardungo zuen langile bat kontratatu zuen barrendegirako eta gaur egungo teknikaria da Beñat Goitia. Ansotegiren esanetan, Goitia zen hasiera-hasieratik Gutxisolo elkarteak behar zuena, “baina beranduegi etorri da”.

Lanaldi erdiz ari da barrendegiko euskara teknikaria eta bi udalerrietan euskararen biziberritzea sustatzeko ekintzak antolatzea du helburu, beti ere Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntzen bitartez. Bi udalerrietako eta barrendegiko eragileekin (Gutxisolo bera eta Txingoka elkarteak) euskararen aldeko jarrera bultzatu nahi du. Adibidez, zinegotzi batzuekin batera ordenantza bat bultzatu zuen, eta ondorioz, Argantzóneko udal-gobernuak neurri batzuk hartu zituen, besteak beste udal bandoak ele biz egitea. Goitiak dio Trebiñuren integrazioa gauza ideologikoa baino, logikoa dela. Adibidez, Trebiñuko eskola publikoan 60 ume daude eta euskaraz ikasterik ez dagoenez, hala nahi duten trebiñarrek Gasteiz eta Langraitzera joan behar dute, Trebiñu eta Argantzón herrietan euskarazko haurtzaindegia badagoen arren. Udalaren ekimenez, eskola publikoan euskara eskolak daude astean behin bazkalorduan, baina ezin gehiago egin Gaztela eta Leongo administraziopean, Estatutuan galiziera eta asturleonera baino ez baitira aipatzen. Dena dela, Goitiak uste du ofizialtasunik ez izanda ere, gauzak egin daitezkeela.



Haur Hezkuntza Argantzonen, Lehen Hezkuntza Manzanosen

2001ean Argantzoneko A ereduako eskola publikoa itxi zutenean, Argantzoneko Udalak Arabako Ikastolen Elkartearekin batera egindako ikerketan ondorioztatu zuen Argantzonen ikastola sortzeko aukera eta nahia bazegoela. 25 urteko eta ilusioz betetako gazte bat kontratatu zuten etxez etxe ikastolarako umeak lortu eta hutsetik hasteko. Ekaitz Lotinaren gazte hura, gaur egungo zuzendaria, eta 2003ko maiatza zen. Urriaren 27an hasi zuten ikasturtea, oraindik eraikinarik pintura usaina zuela.

Hamaika haur eta bi irakaslerekin hasi ziren arren, azken urteetan 40-50 haur izan dituzte, zazpi irakaslerekin. Egoitzaz aldatzen joan dira etengabe, "lehenengo ikastoletan bezala". Ez da ibilbide erraza izan, arazo ekonomikoak izan dituzte urtero eta irakasleen lan-baldintzak ez dira onak izan. Udalari, gurasoen kuotari eta Ikastolen Elkarteko elkartasun kutxari esker biziraun dute, baina egiturazko gabezia sakonak hor dirau: ikastolaren erabateko egonkortasun falta.

Borondatea eta militantzia dira Ekaitz Lotinaren etengabe azpimarratu dituen hitzak. Argantzonen Ikastolak jauzi bat emango duela aipatu digu, Haur Hezkuntzaz gain Lehen Hezkuntza ere eskainiko baitute aurrerantz. Itxaropentsu daude, uste baitute eskaintzaren ondorioz ikasle kopurua bikoiztuko dutela. Hala ere, Lehen Hezkuntzako eskola Trebiñutik kanpo egingo dute, 5 kilometora dagoen Manzanos herrian. Lotinaren esanetan, "hau ez da Argantzonen Ikastolaren garaipena, baizik eta onartzea egoerak behartuta eta ikastolaren hobebharrez barrendegitik kanpo irten

Argantzonen dago ikastola. Haur Hezkuntza daukate. 2003an, sorrera urtean, hamaika haur ziren. Azken urteotan 40-50 dabilta.

» **Ikastolak jauzi bat emango du. Lehen Hezkuntza ere eskainiko dute. Itxaropentsu daude, uste baitute eskaintzaren ondorioz ikasle kopurua bikoiztuko dutela**

» **Erakunde batzuetatik jaso duten mezua izan da ez dutela egingo salbuespenik Trebiñurekin. Eta trebiñarren erantzuna: "Baina Trebiñu salbuespena da!"**

beharko garel". Izan ere, Trebiñun hamabost urtez lan egin ostean, ondorioztatu dute oraingoz ezinezkoa dela bertan egitasmoa garatzen jarraitzea.

2018ko Araba Euskaraz beraiek antolatuko dute. Helburua Argantzonen Ikastolaren proiektua, egoera eta Trebiñu ezagutaraztea dira. Lotinaren ustez, hitz batekin definitzekotan "penagarria" da ikastolaren egoera eta "bateren bat lotsatu beharko litzateke". "Eskale kronikoak" direla ere pentsatu izan dute

ikastolakoek: "Gu irakasleak gara, baina egonkortasuna lortu ahal izateko ordu eta energia asko kentzen duten kontuetan ari gara". Ikastolatik kanpo jasotzen duten erantzuna: "Animoak, txaloak, hitz onak eta batzuetan dirua (lehen gehiago)". Eusko Jaurlaritzaren bidez Udalak euskara sustatzeagatik jasotzen duen dirua galtzekotan egon ziren. Hala ere, Lotinak dio Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean gidaritzak berria abiatu denetik harremanak askoz hobek direla. Ikastola ofizialki arautua dago, baina EAEn alta emanda ez dagoenez, Hezkuntza Sailak ezin du zuzenean esku hartu eta EAEko Kultura Sailetik kudeatzen da egoera.

Udalerrian, ikastolak duen sostenguari ere gustura dago, bere garaian EAJko udal-gobernuak bultzatu zuen proiektua geroztik udaletxean dauden Independenteeek ere sostengatu dutelako. Herrian ere pozik daude, eta egitasmoaren aldeko familia guztiak ikastolara joaten ez diren arren, Argantzonen zat garrantzitsua da herrian bertan eskola izatea. Zailtasunak zailtasun, ikastolaren egitasmoa sendotu eta eraberritu da. Adibidez, Gasteiztik ere badoa jendea ikastolara, izan ere, konfiantzaren pedagogia, umeen zirkulazio librea, adin nahasketa, eta gertuko tratua ildo metodologikoak erabiltzen dituzte, eta gurasoei erakargarri egiten zaie.

Ekainaren 17an egingo den Araba Euskaraz aukera paregabea da Gasteiztik 20 minutura dagoen "adabakira" hurbildu eta ikastolaren egoera ezagutzeko. Trebiñu oraindik ez da Araba eta Argantzonen Ikastola ez da ohiko eskola. Trebiñuarren borondatearekin eta lan eskerarekin aurrera atera den proiektua da, egonkortasuna eta biziraupena egunero kolokan dituenak. ■